



**ERABAKIA, ARRASATE CD-K LEHIAKETA BATZORDEAREN  
EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA ONARTZEN EZ  
DUENA, 2015EKO APIRILAREN 26AN HAURREN LEHEN MAILAKO  
PARTIDUAN IZANDAKO GERTAKARIENGATIK.**

---

Espediente-zenbakia: 18/2015

**AURREKARIAK**

**Lehenengoa.**- 2015eko maiatzaren 11n, CD Arrasatek errekurtsoa jarri zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordean Gipuzkoako Futbol Federazioko Kirol Lehiaketa eta Diziplina Batzordeak emandako ebazpenaren aurka, haurren lehen mailako CD Arrasate eta SD Euskalduna taldeen partiduarekin lotuta.

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) erabaki zuen errekurtsu hau izapidetzeko onartzea, Gipuzkoako Futbol Federazioari espedientea eskatzea eta izapidea ematea, egokitzat jotako alegazioak aurkezteko.

**Hirugarrena.**- 2015eko maiatzaren 22an, errekurtsua jarri zuen klubak eskatu zuen zigorra bertan behera uzteko, kautelazko neurri gisa. KJEBek gaitzetsi egin zuen, hartutako erabakiaren bidez.

**Laugarrena.**- Maiatzaren 27an, Federazioak igorritako espedientea jaso zen.



## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**- Kirol Justiziako Euskal Batzardeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzardea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, Eskolako kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 22. artikulua ere aipatu behar dugu; izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahalmena erabiltzea: lehen instantzian, parte hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei, eta bigarren instantzian, Eskolako Kirolaren Euskal Batzardeari; eta aurreikuspen hori berretsi egiten da Eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

**Bigarrena.**- Espedientean jasotako datuen arabera, Gipuzkoako Futbol Federazioko Kirol Lehiaketa eta Diziplina Batzardeak CD Arrasate zigortu zuen Eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 14J (kirolean arrazismoa, xenofobia eta tolerantzia falta erakusten duten adierazpen publikoak eta bestelako egintzak) eta 17.1.i artikuluetan ezarritakoa oinarri hartuta (partidua galtzea).

Hona hemen zigorra eragin duten gertaerak (arbitroak ziurtatutakoak): partidua amaitzean, partiduko jokalarien adin bertsuko neska-mutiko talde bat aldagelako tunelera sartu ziren atzeko atetik, eta neska batek [REDACTED] jokalaria iraindu zuen. Zehazki, honako hau esan zion: "beltz hori, Afrikara bidaliko zaitut kolpe batez". Arrasateko jokalariek talde horrengana jo zuten, eta futbol-zelaiko barruko instalazioetatik ateratzeko esan zieten. Euskalduna taldeko gurasoetako bat ere sartu zen, eta errieta egin zion taldeari gertatzen



ari zena ikustean. Arrasateko jokalariek barkamena eskatu zioten iraindua izan zen jokalaria, eta guztiek alde egin zuten aldageletatik.

**Hirugarrena**.- Errekurtso-egileak zigorra bertan behera uzteko eskatzen du. Honako hau alegatzen du: gertaera jakin bat izan zen, ikusle jakin batena, eta luke ehun urte beteak dituen erakunde baten irudi publikoa kaltetu behar. Jokalariek ez zuten zerikusirik izan gorabehera honetan, eta instalazioaren kontrol objektiboaren erantzukizuna bere gain hartzen dute, nahiz eta iraindu zuen neskak ez zuen zerikusirik klubarekin.

**Laugarrena**.- Bestalde, Gipuzkoako Futbol Federazioak alegatu du ikuspuntu formaletik begiratuta, CD Arrasatek epez kanpo aurkeztu zuela errekurtoa, eta ikuspuntu materialari erreparatuta, berriz, CD Arrasatek ez zituen bete instalazioen kontrol- eta segurtasun-betebeharrak, kanpoko pertsonak aldageletaraino sartu baitziren, eta, ondorioz, iraun larriak sortu baitziren.

**Bosgarrena**.- Bidezkoa da, lehenik eta behin, errekurtoa epez kanpo aurkeztu den aztertzea. Hala, zigorra 2015eko apirilaren 29an jakinarazi bazen eta errekurtoa 2015eko maiatzaren 11n jarri bazen, egiazki 7 egun baliodun baino gehiago igaro dira, eta hori da uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 40.2 artikuluan agindutako epea. Beraz, errekurtoa garaiz kanpoko izango litzateke, eta bidezkoa da ez onartzea. Nolanahi ere adierazi behar da CD Arrasatek onartu egin zuela instalazioko sarrerak ez zituela kontrolatu, horren ondorioz pertsona batzuk aldageletaraino sartu zirela eta ikusleetako batek larriki iraindu zuela talde arerioko jokalaria bat, arrazismo kutsu nabarmenarekin. Horrenbestez, ikuspuntu materialetik begiratuta ere ezingo litzakete errekurtoa onartu.



Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

### **ERABAKI DU:**

Ez onartzea CD Arrasatek Gipuzkoako Futbol Federazioaren Lehiaketa eta Diziplina Batzordeak 2015eko apirilaren 28an emandako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa, epez kanpo aurkeztu delako.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtsogileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 1a

José Ramón Mejías Vicandi

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea